

**II - ARABAKO LURRALDE
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA****MOREDA ARABAKO UDALA****Behin betiko onartzea 2018ko aurrekontu orokorra**

Bat etorri otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeen aurrekontuenak, 15. artikuluan xedatutakoarekin, eta ez denez inolako erreklamaziorik edo oharrik aurkeztu 2018ko aurrekontu orokorrari hasierako onarpena eman zion erabakiaren aurka, aurrekontu hori behin betiko onartuta geratzen da. Hona laburpena, kapituluka:

GASTUEN EGOERA

KAPITULUA	ZENBATEKOA (EURO)
I. Langile gastuak	100.925
II. Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea	99.710
III. Finantza gastuak	300
IV. Transferentzia arruntak	15.990
V. Kreditu orokorra	15.734,48
VI. Inbertsio errealak	750.212,90
IX Finantza-pasiboak	0
Gastuen egoera, guztira	982.872,38 euro

DIRU SARREREN EGOERA

KAPITULUA	ZENBATEKOA (EURO)
I. Zuzeneko zergak	73.200
II. Zeharkako zergak	2.500
III. Tasak eta bestelako diru sarrerak	22.138
IV. Transferentzia arruntak:	125.075
V. Ondare bidezko diru sarrerak	14.124
VII. Kapital transferentziak	745.835,38
Diru sarreraren egoera, guztira	982.872,38 euro

Batera, eta apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren 127. artikuluan eta 6/1989 Legeak, euskal funtzio publikoarenak, 16. artikuluan ezarritakoarekin bat etorri, erakunde honetako lanpostuen zerrenda ematen da argitarara eranskinean.

Udalaren aurrekontu orokorra behin betiko onartzen duen erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Moreda Araba, 2018ko otsailaren 26a

Alkatea

MIRIAM GARRIDO REMÍREZ DE GANUZA

I. eranskina

1. Karrerako funtzionarioak

1.1. Gaikuntza nazionalekoak.

Lanpostuaren izena: idazkari-kontuhartzailea.

Administrazio egoera: bitartekoa.

Lanbide kategoria: teknikaria.

Lanaldia: ehuneko 50, lekora eta Moreda Arabako udalen elkarte.

Taldea: A1.

Maila: 24.

Berariazko osagarria: 9.846,20 euro.

Hizkuntza eskakizuna: 4; derrigortasun data: 2017ko abenduaren 31.

2. Lan kontratupeko langileak

2.1. Lan kontratu mugagabeak.

Lanpostuaren izena: administrari laguntzailea.

Administrazio egoera: aktiboan.

Lanbide kategoria: administraria.

Lanaldia: Ehuneko 50.

Taldea: D.

Maila: 18.

Hizkuntza eskakizuna: 2; derrigortasun data: 2017ko abenduaren 31.

Lanpostuaren izena: garbitzailea.

Administrazio egoera: aktiboan.

Lanbide kategoria: zerbitzu bereziak.

Lanaldia: ehuneko 30.

Taldea: E.

Maila: 13.

Lanpostuaren izena: zerbitzu publikoetako behargina.

Administrazio egoera: aktiboan.

Lanbide kategoria: zerbitzu bereziak.

Lanaldia: ehuneko 100.

Taldea: E.

Maila: 13.

II. eranskina

Bat etorri apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, toki araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 75.5 artikuluan xedatutakoarekin, osorik argitaratzen da udal korporazioko kideen kalte ordainen eta bilkuretara joateen gaineko erabakia:

Ordainsaria alkatea osoko bilkuretara joateagatik: 240 euro.

Ordainsaria zinegotziak osoko bilkuretara joateagatik: 36 euro.